



## **MODULU BERRIEN ESKAINTZA - 2022- 2023 IKASTURTEA**

### **EUSKARA**

### **HIZKUNTZA MAILA EGUNERATZEKO ETA HOBETZEKO (B1/B2.1 MAILAK): AHOZKO ADIERAZPENA.**

### **NORI ZUZENDUA:**

Ikastaroa egokia da euskaraz ahozko adierazpena hobetu nahi duten B1/B2.1 mailetakoko ikasleendako, edo A2ko maila gainditua duen eta mintzapraktika egin nahi duen edozein pertsonarendako.

### **ZER ESKATZEN DEN:**

Gutienez A2ko maila edukitzea.

### **MODULUAREN EZAUGARRIAK:**

Zenbat saio: 13 saio, bakoitza 2 ordu eta 15 minutukoa.

Noiz: Astean behin.

### **IKASLE GEHIENEN KOPURUA: 25**

### **HELBURUAK:**

- Emozioak, ideiak, esperientziak eta iritziak aise eta natural adierazteko gauza izatea. -Hainbat egoera sozialetan sorturiko beharrei erantzuteko hizkuntza eraginkortasunez erabiltzeko gai izatea, eta mezuaren eta entzulearen arabera erregistro egokiena hautatuz. -Gaur egungo gaiei buruzko ideiak eta iritziak zehatz adierazteko gauza izatea. -Helburu jakin bat duten eginkizun komunikatiboak egoki betetzeko behar diren trebetasunak lantzea.
- Hiztegia aberastea, hizkuntza tarteko mailak eskatzen duen zehaztasunez erabili ahal izateko.
- Ahoskera eta intonazioa hobetzea.
- Zenbait trebetasun batera landuz, bitartekotza gelako jarduera gisa integratzea.
- Ikasleek hala eskatuko balute, ahozko proba zertifikatiboak ezagutzen laguntzea.

### **METODOLOGÍA:**

- Metodologia aktiboa erabiliko da. Ahozko jarduera guzietan egiazko komunikazio egoerak bilatuko dira, edo egiazkoak izan daitezkeenak, eta, alde horretatik, ikasleendako esanguratsuak eta interesgarriak izan daitezkeenak.
- Ikastaro mota honek, bistan dena, ikasleen parte hartze aktiboa eskatzen du. Gehienetan bikoteka, hirukoteka edo taldeka egingen da lan, kooperazioa bultzatu nahian.
- Hainbat iturritatik hartutako egiazko materiala erabiliko du irakasleak.
- Gelako lanak helburu komunikatibo bat bilatuko du beti.

### **EBALUAZIOA:**

Ikastaro honetan ez da ebaluazio formal zertifikatiborik izanen. Bai, ordea, ebaluazio jarraitua,

ikasleen garapena ezagutzeko. Horretarako, irakasleak hainbat mekanismo erabiliko ditu, hala nola berdinen arteko ebaluazioa, zuzeneko behaketa edo atazen helburuak noraino bete diren baloratzea.

### **ZERTIFIKAZIOA:**

- Gutierrez saioen %80ra azaldu diren ikasleek ikastaroa aprobetxatu izanaren ziurtagiri bat jasoko dute, ondorio akademikorik gabea.
- Nahi izatera, ikasleek egokitzat jotzen duten mailaren azterketa egiteko aukera izanen dute (betiere, matrikula librea ordaindu ondotik).

Ikastaro honetako ikasle ofizialen matrikulazioak ohiko bidea bete beharko du, hau da, aurreinskripzioa, zozketa eta online bidezko matrikula.

Informazio gehiago behar izanez gero, Eskolaren web-orrian duzue:

<https://eoip.educacion.navarra.es>